

**2010EKO MARTXOAREN 30EAN GOBERNU BATZARRAK**  
**EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hogeita hamarra

**HILABETEA:** Martxo

**URTEA:** Bi mila eta hamar

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatzi eta erdiak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Julio Herreros Serna

**ETORRI GABEAK:** Jon Kortaberria Lasa

Begoña Lasa Royuela

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2010eko martxoaren 26ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- OBRAK ESLEITZEA.** Udal jabetzakoak diren lokalen hobekuntza: ludoteka, udaltzaingoa eta udaletxearen beheko oina.

Egun berean Kontratazio-mahaiak egindako proposamenaren berri eman da:

**AURREKARIAK**

**I.-** 2010eko otsailaren 26ko Gobernu Batzordeak, udal jabetzakoak diren lokalen hobekuntza: ludoteka, udaltzaingoa eta udaletxearen beheko oinari buruzko obrak kontratatzeko deialdia egitea erabaki zuen, horretarako baldintza administratiboa onartuz. Proiektua, 2010eko otsailaren 1ean Gobernu Batzordeak egindako bileran onartu zuen

**II.-** Deialdia, 2010eko martxoaren 3an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 13 egunetan jarraian aipatzen diren enpresak aurkeztu ziren.

2. Kartazala 2010eko martxoaren 18an publikoki ireki zen eta Kontratazio Mahaiak 2010eko martxoaren 26an, teknikoek emandako txostenaren arabera, ondorengo adjudikazio-irizpideei puntuazioa ematea erabaki zuen: obraren azterlana, obrari atxikitako pertsonala eta asistentzia teknikoak, epea.

Martxoaren 29an, 3. kartazala ireki zen. Aurkeztutako eskaintzak eta bakoitzari emandako puntuak honako hauek dira:

OBRAS DE MEJORA DE DEPENDENCIAS DE PROPIEDAD MUNICIPAL: LUDOTECA, POLICIA MUNICIPAL y PLANTA BAJA DEL EDIFICIO CONSISTORIAL											
LICITACION		OFERTANTES					PUNTUACIONES				
Importe Total IVA inc.	Plazo (semanas)	CONTRATISTA	OFERTAS			Estudio Económico	Estudio plazo	Estudio Obra (35P)	Estudio personal	TOTAL VALORACION	
			Ejecución Contrata	IVA	Total oferta						Plazo
944.241,83	35 SEMANAS	CNES AMARAL DE SOUSA SL	634.117,87	101.458,86	735.576,73	30	28,771	3,57	2,25	10,5	45,09
		CNES ARTZAMENDI SA	667.481,00	106.796,96	774.277,96	28	47,985	5	1,125	1	55,11
		CNES GOITU ERAIKUNTZAK	719.664,32	115.146,29	834.810,61	28	49,131	5	6,9	10,31	71,34
		CNES IKENA	717.296,46	114.767,43	832.063,89	28	50,494	5	1,75	3	60,24
		CNES IRABA	729.801,12	116.768,18	846.569,30	28	43,293	5	0,375	0	48,67
		CNES ITURRIOZ	734.807,63	117.569,22	852.376,85	28	40,410	5	13,05	15	73,46
		CNES OLABARRI	744.848,55	119.175,77	864.024,32	28	34,627	5	8,95	15	63,58
		CNES PEDRO IPARRAGUIRRE SL	681.964,46	109.114,31	791.078,77	28	56,326	5	2	0	63,33
		EFORMAS Y CONTRATAS DE GUIPUZ	684.816,29	109.570,61	794.386,90	28	57,968	5	5,875	3	71,84
		CNES TRATI SL	637.102,07	101.936,33	739.038,40	28	30,489	5	4,75	5,94	46,18
		CNES URBYCOLAN	688.344,88	110.135,18	798.480,06	28	60	5	15,38	13,8	94,18
		MEDIA PROPUESTAS			805.698,53	28,18					
		BAJA MEDIA		14,67							
		<b>BAJA OFERTA A ADJUDICAR</b>		<b>15,44</b>							

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Udal jabetzakoak diren lokalen hobekuntza: ludoteka, udaltzaingoa eta udaletxearen beheko oinari buruzko obrak exekutatzeari, URBYCOLAN, S.L.enpresari behin-behinik esleitzea, 798.480,06 €tan (BEZ barne). Egikaritze epea, 28 hilabetekoa izango da, zuinketa akta sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hau kontratua sinatzen denetik hamabost eguneko epean egin beharko da.

**Bigarren.** Hamabost laneguneko epean behin-behinik esleipena jakinarazten denetik kontatzen hasita, adjudikaziodunak ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du:

- 34.417,24 €ko behin betiko fidantza.
- Obra horretan lana egin behar duen pertsoneri buruz, adieraziko da zeintzuk diren plantilakoak eta zeintzuk diren langabezia daudenetik kontratatutakoak.
- Zerga eta gizarte segurantza betebeharretan eguneratuta egotearen ziurtagiriak.”

Bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

### **3.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderan atalean, ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.